



Azpeitiko Udala

ALKATETZAK 2018KO ABENDUAREN 10EAN EMANDAKO EBAZPENA. HONEN BITARTEZ, AZPEITIKO UDALERRIAN ARAUBIDE OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 29 ETXEBIZITZA ESLEITZEKO PROZEDURAN ONARTUAK ETA BAZTERTUAK IZAN DIRENEN ZERRENDAK ARGITARATZEN DIRA.

AURREKARIAK

Udalbatzak 2018ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko (HAPO) “Arana Ingurunea” HEN4 esparruko Esklabak-Iturzulo 4.3 azpieremuan 1. fasean eraikitzeakoak diren araubide orokorreko babes ofizialeko 29 etxebizitza esleitzeko prozedurari hasiera eman zion (lehen fasea). Deialdiaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2018ko ekainaren 1ean.

Oinarrien laugarren atalean **2018ko abenduaren 3ko** data zehaztu zen, indarrean dagoen araudian aurreikusitako eskakizunak betetzen zituzten pertsonak edo bizikidetza-unitateak, esleipen prozedura horretan parte-hartzea eskatzeko.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarritzko baldintzak bete direla egiaztatatu ondoren, onartuak eta baztertuak izan direnen behin behineko zerrendak osatu dira kupotan banatuta (orokorra eta etxebizitza egokituak), eta, kasuan kasu, baztertzeko arrazoiak zein izan diren adierazita.

Zerrenda horiek Azpeitiko udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian www.azpeitia.eus erakutsiko dira, hamar egun balioudunetan, eta denbora honetan baztertuak izan direnek erreklamazioa jartzeko aukera izango dute, uste badute erabaki hori ez dela arrazoizkoa edo justifikatua izan. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko dute Azpeitiko Udalaren sarrera erregistroan, adierazitako arrazoiak frogatzeko oinarritzat jotzen dituzten agiriekin batera.

Eta eskumenari dagokionez, Toki Administrazioaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21. artikulua dioena ikusita (apirilaren 2ko 7/1985 Legea), Alkatetza honek ERABAKI DU:

1.- Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko (HAPO) “Arana Ingurunea” HEN4 esparruko Esklabak-Iturzulo 4.3 azpieremuan 1. fasean eraikitzeakoak diren araubide orokorreko babes ofizialeko 29 etxebizitza esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak argitaratzea; zerrenda horiek Ebazpen honen 1. eta 2. eranskinetan jasotzen dira hurrenez hurren.

2.- Prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak hamar laneguneko epean jarriko dira jendaurrean erakusgai Azpeitiko Udalaren iragarki taulan eta web orrian www.azpeitia.eus. Baztertuak izan direnek denbora honetan erreklamazioa jartzeko aukera izango dute, uste badute erabaki hori ez dela arrazoizkoa edo justifikatua izan.

Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko dute Azpeitiko Udalaren sarrera erregistroan, adierazitako arrazoiak frogatzeko oinarritzat jotzen dituzten agiriekin batera.

Ebazpen hau tramitekoa da, eta ez du administrazio-bidea amaitzen.

Azpeitian, 2018ko abenduaren 10ean.- Alkateak.- Eneko Etxeberria Bereziartua.

